

Laudio, 2022ko maiatzaren 31n

Laudiok kerik gabeko guneak ezarriko ditu udalerrian herri-kontsulta bidez

Tabakorik Gabeko Munduko Eguna dela eta, Laudioko Udalak eta Minbiziaren Kontra Araban elkarteak "Kerik gabeko guneak Laudion" kanpaina abiarazi dute, tabakoak erretzaileen eta haien ingurukoen osasunean dituen ondorio kaltegarriez laudioarrak kontzientziazteko

Gaur, Tabakorik Gabeko Munduko Egunean, Laudioko Udaleko Adikzioen Prebentzio Zerbitzuak, Minbiziaren Kontra Araban elkartearekin lankidetzan, "Kerik Gabeko Guneak Laudion" kanpaina jarri du abian, tabakoaren kerik gabeko gune komunitario berriak identifikatzea sustatzeko. Toki berri horiek definitzeko ardurua Laudioko bizilagunek izango dute.

Proposatutako seien artean, herritarrek erabilera publikoko hiru gune lehentasun-ordenan bozkatu eta aukeratu ahal izango dituzte: autobus-markesinak, Herriko Plaza, ikastetxeen inguruak, osasun-zentroen inguruak, Kultur Etxetik gertu dagoen eremua eta Aldai plazako merkatua.

"Aipatutako guneak, herritarrek asko erabiltzen dituztelako eta adingabeak egoten direlako aukeratu dira. Prozesu honetan parte hartu ahal izatea, herritar guztiez gain txikienak ere tartean sartuz, aprobetxatu behar dugun aukera da. Eztabaida hori sortu behar dugu, eta hain kaltegarria den ohituraren inguruan sentzibilizatu eta kontzientziatu" nabarmendu du Loli Muriel Gizarte Ongizateko zinegotziak.

“Tabakoak ez die soilik erretzen duten pertsoneri eragiten, baita haien inguruko pertsoneri ere. Kerik gabeko guneak ezarriz, herritarrak eta, batez ere, umeak, babestu nahi dira. Kalkuluaren arabera, 10 erretzailetik 9k adingabeen aurrean ere erretzen du”, azaldu du Ainara Quintela Minbiziaren Kontra Araban elkarteko gerenteak.

Formularioa udal webgunean (www.laudio.eus) egongo da eskuragarri maiatzaren 31tik ekainaren 19ra arte. Gainera, Minbiziaren Kontra Araban elkarteak informazio-mahaia jarriko du herrian ekainaren 9an eta 10ean. Bertan, informazioa emateaz gain, online bozkatu ezin duten arren parte hartu nahi duten pertsona guztien botoak jasoko dira. Ekainaren 9an, 10:30etik 12:00etara, Aldai plazan, eta ekainaren 10ean, 17:00etatik 19:00etara, Alberto Acero plazan.

Iritzi guztiak aztertu ondoren, herritarren boto gehien jasotzen dituen kerik gabeko gune bihurtuko da, eta horrela seinaleztatuko da.

Ekimen horren bidez, Arabako Udalak eta Minbiziaren Kontra Araban elkarteak tabakoak osasunean dituen ondorio kaltegarriak buruz kontzientziatu nahi dituzte herritarrak. Eta ez erretzaileen osasunean bakarrik, baita haien inguruko osasunean ere. Horregatik guztiatik, udal administrazioak kerik gabeko leku berri horietan ez erretzeko deia egiten die kontsumitzaileei.

Inguruneko tabako-kearen ondorioak

Inguruneko tabako-keak inguruan dauden adingabeengan du eragina: % 50 areagotzen dira otitis-kasuak, % 20 krisi asmatikoak eta % 30 arnas infekzioak.

Adingabeak dauden espazio publikoen ia % 100ean, inguruneko ke-hondarrak daude, haur-parkeetan, ikastetxeetarako sarbideetan eta ostalaritzako lokaletarako eta terrazetarako sarreretan, besteak beste.

Ke horrek airean jarraitzen du, ikusi eta usaindu ezin dugun arren, batez ere une oro erretzen den lekuetan. Inguruneko tabako-kearen eraginpean egoteak etorkizunean biriketako minbizia izateko arriskua bikoizten du. Gaur egun, tabakoaren ondoriozkoa da 3 minbizi-kasutatik 1.

Minbiziaren Kontra elkartetik Estatu mailako ekimen bat lantzen ari dira, kerik gabeko espazioak beste eremu batzuetara zabaltzeko, batez ere adingabeak ibiltzen diren eremuetara: parkeetara eta berdeguneetara, plazetara, garraio-geltokietara, hondartzetara eta aire zabaleko merkatuetara.